
Merezi al du?



Ipuin-bilduma



BOOKTEGI

Guztion liburuak, guztiontzat

booktegi.eu



Julene Azpeitia lehiaketa

Bilduma honetan dauden ipuinak Durangoko Julene Azpeitia lehiaketak sarituak dira.

Ilustrazioak: Imanol Larrinaga



DURANGO
Udala • Ayuntamiento

Merezi al du?

IPUINAK

AURKIBIDEA

Pasabide misteriotsua	6
<i>Mikel Agirre Maskariano</i>	
Merezi al du?	10
<i>Nerea Aizpurua Iglesias</i>	
Ziortza txerria	15
<i>Gontzal Alkorta Garai</i>	
Monjak	17
<i>Gontzal Alkorta Garai</i>	
Ume susmagarria	21
<i>Janire Arrillaga</i>	
Aitona eta nire arteko sekretuak	24
<i>Libe Atxotegi</i>	
Eguneroko ezberdinak	29
<i>Maitane Beobide</i>	
Ez!	34
<i>Olaya Gonzalez Etxegibel</i>	
Gizon baten ametsa izana naiz	39
<i>Iasmina Gorroño Larrinaga</i>	
Eskubero eta kiskalesku	43
<i>Liber Sologaistua</i>	

Pasabide misteriotsua

Mikel Agirre Maskariano

Bazen behin Nikolas deituriko gizon bat. Nikolas oso jatorra zen. Ile beltza zuen eta garaia eta sendoa zen.

Nikolasek museo baten egiten zuen lan, garbitzaile bezala. Museoa Thomas Vienndrich deitzen zen, Birminghameko black Vialean zegoen. Behin bere koadrorik gustukoena garbitzen joan zenean zarata gogor eta luze bat entzun zuen. Zarata zetorren lekurantz abiatu zen. Zaldi baten irudia zuen koadro batek egiten zuen. Orduan Nikolasek koadroa mugitzea erabaki zuen. Koadroa mugitu eta ez zegoen ezer. Horma besterik ez.

Bertan behera utzi zuen zarataren misterioa eta garbitzen jarraitu zuen. Baina, berriro ere, zarata entzun zuen, lehen baino gogorrago gainera. Haserreturik, Nikolas zarata zer zen jakitera joan zen. Makila bat hartu, koadroa mugitu eta horma behera bota zuen. Orduan museoko polizia Nikolasengana joan zen. Zer gertatzen zen galdetu zion. Nikolasek misterioa azaldu zion eta museoko polizia barrezka hasi zen. Baina, une horretan berriro entzun zen zarata, beraien belarrien ondo ondoan gainera. Poliziak sinetsi egin zuen Nikolasek esandakoa, eta biak hasi ziren horma botatzen. Bat batean zabalgunek bat aurkitu zuten. Lehenik polizia sartu zen eta Nikolasek jarraitu egin zion. Pasabide luze eta estu bat zen. Ia sartu ere ezin ziren egin. Aurrera jarraitu zuten biek, oztopo bat aurkitu arte: pasabidea bitan zatitzen zen. Biek ezkerreko pasabidetik joatea erabaki zuten. Estuena zen, baina poliziak esan zuen bide egokia handik zegoela, eta Nikolasek jaramon egin zion.



Pasabidea ez zela amaitzen zirudien, baina gure bi lagunek ez zuten etsi eta aurrera jarraitu zuten. Pasabidea gero eta estuagoa zen eta makurtuta joan behar izan zuten. Une horretan polizia goranzko beste pasabide bat zegoela konturatu zen, eta gorantz jo zuen. Nikolasek bera ezin zela igo esan zion poliziarri, eta aurrera jarraitu zuen berak bakarrik. Polizia gora igo zenean ganbara bat eta eskailera batzuk zeudela ikusi

zuen. Aldi berean, Nikolas beheruntz zegoen pasabide batetik erori eta liburutegi handi batera iritsi zen. Beste alde batetik polizia eskailerak igo eta igo zebilen. Azkenean laborategi batera iritsi eta arrastorik utzi barik hil zen. Esaten dute norbaitek injekzio batekin hil zuela. Bien bitartean Nikolas liburutegian zegoen. Liburutegia argi erreflektantez beterik zegoen. Nikolasek argiak jarraitu zituen. Orduan norbaitek eskutik heldu eta berari jarraitzeko esan zion. Nikolasek kasu egin zion, baina ez zen ideia ona izan, labain batez zauri handi egin ziolako eskuan. Nikolasek eskua ikusi eta korrika hasi zen. Orduan, konturatu barik, pasabide batetik erori zen. Pasabidearen beste aldean pertsona bat zegoen beste aldera begira, labaina zuen pertsona zahar bat zen. Buelta eman zuenean Nikolas ihesi joan zen norabide tinko barik. Agureak barre egin zuen. Nikolas asko urrundu zen agureagandik, baina atzerantz begira zihoala, bat batean, bere aurrean sorgin zahar et itsusi bat ikusi eta berehala beste alderantz egin zuen buelta, baina beranduegi zen, agurea bere atzean baitzegoen. Agureak esku zauritutik heldu zuen Nikolas. Orduan bere lagun polizia hil zuten laborategira eraman zuten Nikolas, eta aulki elektrikoan jarri zuten, baina Nikolasek bazekien ez zegoela argirik. Bat batean, argia piztu zuen eta Nikolas urduritzen hasi zen. Nikolasek kablea hanketan zeukan, baina hala eta guzti ezin zuen argia itzali. Agurea palanka jaistera zihoanean argia joan egin zen eta Nikolasek burdinak apurtu eta, agureak eta sorginak ikusi gabe, ihes egin zuen. Nikolas oso larri zegoen, beldurrez gainezka. Atzerantz begira zihoan. Poliziak igo zuen pasabidetik jausi eta atzerantz bueltatu zen. Pasabidea hasten zen lekuan jende ugari, anbulantziak, poliziak... zeuden. Nikolasek zulo hori berehala estaltzeko agindua eman zuen eta, une horretan, anbulantzian igo eta ospitalera eraman zuten eskua ikusteko. Nikolasek hiru hilabete eman zituen ospitalean. Gero komisariara eraman zuten zer pasatu zen galdetzeko. Nikolasek dena kontatu zuen, baina ez zioten sinetsi eta kartzelara bidali zuten poliziaren hilketa leporatuta.





Merezi al du?

Nerea Aizpurua Iglesias

1998an gertatzen da istorio hau, zehatzago esanda urtarrilaren zortziko arratsalde eguzkitsu batean.

Istorio honetako protagonistak, Patrik du izena baina bere “lagunek” Peli deitzen diote. Hitz gutxitan azalduko dizuet nolakoa den: Aurpegiz liraina baina izaeraz zakarra. Oso harroputza da eta besteetaz barrez ibiltzen da egun osoan, ia ez du lagunik, baina berari hori ez dio axola. Txikitako bi lagun ditu bakarrik, Andoni eta Imanol.

Orain hasiko nahiz arratsalde horretan gertatu zena azaltzen.

Bazkaltzen ari ziren bitartean, Andonik eta Imanolek, mendira bidaia bat egitea pentsatu zuten. Arratsalde hartan joatea proposatu zuen Imanolek, eta horrela egin zuten, bazkaltzen bukatu eta martxan jarri ziren mendiari bisita bat egiteko.

Oso pozik zihoazen hirurok autoan kantatuz, baina bat-batean Peliri, (hau baitzen gidatzen zegoena), bolanteak buelta osoa eman eta errepidetik atera ziren. Autoa basoan barrena zihoan, eta zuhaitz baten kontra jo zuenean gelditu zen.

Imanolek eta Andonik ez zuten kolpe handirik hartu, ondo zeuden, baina Peli oso larri zegoen. Imanolek mugikorra hartu eta larrialdietara deitu zuen.

Ospitalean zeuden hirurok. Imanol eta Andoni koilarin batekin. Peli arriskutik kanpo zegoen baina aurpegia deformatuta zeukan: ia ez da pertsona liraina.

Etxera bueltan, Pelik esaten die bere lagunei: - Aizue, nik ez nuen bolantea ukitu ...

- Eta horrekin zer esan nahi duzu? - esaten du Imanolek.

- Ba, gure istripua ez dela gura barik izan, nik uste, norbaitek eragin duela.

Gau hartan, Peli lo zegoen bitartean, Laga hondartzako itsasgizon batek berba egin zion. Berak amets bat zela pentsatu zuen baina segituan konturatu zen ez zela horrela. Bere bi lagunei deitu zien beldurtuta zegoelako.

Hirurak zeuden jadanik Peliren etxean, eta itsasgizonak Peliri hitz egiten hasi zitzaion:

- Mutiko azkarra zu, e...?. - Bai, badakit azkarra naizela.

- Eta orduan jakingo duzu, zuk edukitako istripua ez dela kasualitatez izan ezta?

- Ba nik uste ezetz.

- Ba egia da, nik eragin dut istripu hori, jakin dezazun ez duzula besteen kabuz edo itxuragatik barre egin behar. Nahi baduzu zerbait egin dezaket zure izaera eta itxura aldatzeko.

- Bai?, baina zer?

- Hamabost txirla mota desberdin aurkitu beharko dituzu zure izaera aldatzeko, eta hamazortzi zure itxura aldatzeko. Ez pentsa hain erreza denik, urteak eta urteak emango dituzu txirla horien bila, pentsa, zure bizitza osoa alegia. Aurkituko dituzun lehenengo hamabost txirlek zure izaera aldatuko dute eta besteek itxura. Onartzen ahal duzu?

- Ez badago beste erremediorik... onartzen dut.



- A!, ahaztu baino lehen: bidaia hau, zuk bakarrik egin beharko duzu, inoren laguntzarik gabe. Lehenengo hamabost txirla dituzunean, Lagako arroketan utzi, itsasaldiak niri ekarriko dizkidalako, eta orduan beteko dut zin egin dizudana. Konforme?

- Ongi da.

- Beno, zorte ona izan. Hemendik aurrera hazten da zure bidaia!. Hemen uzten dizut txirla mota desberdinen papera, edonon aurki ditzakezu.

Peli oso urduri dago. Urte bete igaro da jadanik Itsasgizona bere etxean agertu zenetik eta hiru txirla bakarrik aurkitu ditu: bere ohe azpian, Benidormen eta Mañariko harrobietan. Oraindik hamabi geratzen zaizkio, etsita dago Peli.

Peliri hau gertatu zitzaionean, hogeita bat urte zituen eta hogeita hamasei ditu orain, txirla bat bakarrik geratzen zaio!, korala motakoa.

Ezetz jakin non aurkitu zuen azkena?, bere etxean!, txikitan egindako “La Arboledara” bidaiakoa. Arroketan ezkutatuta aurkitu zuen eta poltsikora sartu zuen oroigarritzat, bere gela txukuntzen ari zela aurkitu zuen.

Pena eman zion koral horren jabea izateari uztea, baina ondorioak hobegoak izango zirela pentsatu zuen.

Arratsalde hartan joan zen txirla guztiekin Lagako arroketara, eta han utzi zituen, itsasaldiak eramane zituen arte.

Bat-batean, Peli, pertsona jatorra eta ona bihurtu zen. Gogo handia zuen lagunak egiteko eta bere bi lagunekin egoteko.

Lagun asko eta onak egin zituen Pelik, eta konturatu zen, itxura ez dela izaera bezain garrantzitsua, eta erabaki bat hartu zuen: bidaiarekin ez jarraitzea, bertan bera uztea. Konturatu zen hogeita bat urtetik hogeita hamasei urtera, bere bizitzako momentu asko galdu zituela eta orain aprobetxatu nahi zituela bere lagunekin.

Orain ez dio garrantzia asko ematen kanpoko itxurari, jendeak, den moduan maitatzen duelako, eta pertsona liraina izango bazen, izaera aldatuko zuen berriro. Lagako hondartzara joan zen Peli, Itsasgizonari berria ematera.

- Ziur zaude mutiko?

- Bai, oso ziur nago. Orain nire bizitza aprobetxatu behar dut, urte asko galdu baititut. Horrela geratzea pentsatu dut, kanpotik itsusia baina barrutik jatorra.



- Oso ondo iruditzen zait zure erabakia, eta horregatik, opari bat emango dizut:

- Zein?

- Zuk txikitan, "La Arboledan " aurkitutako korala.

- Zelan dakizu "La Arboledan" aurkitu nuela?

- Mutiko, tontoa naizela uste duzu? Tira, hartu zure korala eta segi, merezi duzu eta.

- Ea ikusten garen hondartzetan.

- Trankil, zeinu bat egingo dizut. Beno, joan beharra daukat. Agur!.

- Bai, agur!

Azkenean, Pelik zoriontsu gozatu zuen bizitza bere inguruan zituen lagunekin, eta ikasi zuen, bai, ez zuela besteetaz barre egin behar...

Ziortza txerria

Gontzal Alkorta Garai

Bazen behin Zerriporki izena zuen herria. Familia hauek osatzen zuten: Ziortza, Esotzi, Txirrimirri eta Kaskamirri.

Ziortza oso triste zegoen ez zuelako lurra ezagutzen eta Txirrimirri galdetu zion nolakoa zen. Arratsaldean bere familiari esan zion eta ondo hartu zuten gurasoek.

Bi astetara planetara iritsi zen eta txizepozo batera jauzi zen kotxez.

- Non nago ni? –esan zuen txerritxoak.

Han lau txerritxo zeuden, eta esan zioten txizepozo batean zegoela, baina berak ez zekien zer zen.

Hortik bi astetara Miamira iritsi zen. Bertan mutil bat ezagutu zuen, Pako zuena izena.

Pako oso atsegina zen, batez ere Ziortzarekin.

Ziortza handik bost egunera Pariseko txerri dantzaldira joan zen, eta dantzan hasi zen Mimiko txerriarekin. Bera maitemindu egin zen eta honek esan zion:

- Nahi ahal duzu nirekin ezkondu?

- Gog, gog, bai noski.

Mimikok etxera eraman zuen Ziortza, bere familia ezagutzera; baina Ziortzari ez zitzaion gustatu.

- Banoa hemendik! –esan zuen garrasika.

- Baina, Ziortza, ez nauzu bakarri utziko, ezta?

- Bai, utziko zaitut.

- Ez, mesedez

- Banoa hemendik.

Ziortza, isil-isilik kotxea hartu, eta, Mongoliara joan zen. Hantxe San Martin eguna zen eta jende guztia Ziortzaren atzetik joan zen bera jateko. Baina animalia honek garraioa hartu eta Errusiako gaztelu batetara ailegatu zen.

- Nolako gaztelu polita! –esan zuen ederrarena eginez.

Bat-batean gazteluko atea ireki eta Jainkoa agertu zen.

- Pasa zaitetz txerritxo! –esan zuen Jainkoak alai.

- Ongi da, banoa –esan zuen ilusioz.

Ziortza gazteluko logelarik politenera joan zen. Bitartean Jainkoa pentsakor zebilen bere logelan ez baitzekien zer egin animalia horrekin.

- Badakit, txerria harategira eramango dut.

- Zer esan duzu?

- Ezer ez.

Txerriak hortik aldegin zuen goiz batean eta bere lurraldera itzuli zen.

- Ama, hemen nago.

- Badakit hemen zaudela jolasean –esan zuen barrezka.

Txerritxoak jakin izan zuen amets bat zela eta pozik jarri zen.

- Esotzi, mesedez, ez joan lurra ezagutzera, agian suerte txarra emango dizu –
esan zuen penaz.

Hortik aurrera familia pozik eta alai bizi izan zen.

Monjak

Gontzal Alkorta Garai

Orain dela urte batzuk Durangoko San Antonio Komentuan 110 monja bizi ziren. Baina hortik bi oso desberdinak ziren besteen artean: Sor Maria Teresa eta Sor Maria Eugenia ziren. Ez zitzairen gustatzen komentuan egotea. Zazpiak ziren eta errezatzeko ordua heldu zen:

- Gure aita zeruetan zarana... Amen - abestu zuten monjek.

Baina bat batean bi lapur sartu ziren komentuan eskopetekin Jordi Pujol buruzagia zelarrik:

- Mesedez, altxa eskuak! - esan zuen Jordik.

Orduan monjek lapurrek esan zutena egin zuten. Baina Sor Maria Teresak eta Sor Maria Eugenia korrika hasi ziren ertzainei deitzeko. Baina bigarren lapurra, Paloke deiturikoa, tiroka hasi zen. Orduan bi monjak hil egin ziren.

Hil ondoren espiritu bihurtu zirela konturatu ziren eta bat batean, argi bat ikusi zuten urrutian eta argiari jarraitzen hasi ziren itsu.

Heldu zirenean argiaren amaierara, kartel batean ipintzen zuen: Foka-monje monja arraroen herria. Monjak elkarri begira hasi ziren.

- Baina zer izango da hau - esan zuen Eugeniak.


- Guri gustatuko zaigun herria - erantzun zion Teresak.

Biak herrira sartu ziren eta hotel bat ikusi zuten eta han hartu zuten ostatu.

- E, monster, zer nahi duzu? - galdetu zion hoteleko buruak.

- Isil zaitez aho itsusi hori - esan zuten bi monjek.

- Hemen beti, palabrotak esaten dira eta gauza txarrak egiten. Hobeto esanda monjen jarreraren alderantzizkoa - esan zion hoteleko buruak.



- Txomin, sartu - esan zuen zerbitzariak.

- Isil zaitez - esan zion Teresak.

- A zelako neska txotxiak - esan zuen zerbitzariak.

- Ai, a zelako mutil katxarroak - esan zuten biek ahopean.

Hoteletik, diskoteka batera joan ziren monjak zerbitzariak eramanda. Ailegatu zirenean, kartel bat jartzen zuen esanez: 5 ordu daukazue lurrera iristeko, baina Jainkoarengana joan behar zarete eta giltza lapurtu, baina kontuz esklabo arriskutsuak ditu bidean eta. Orduan biak korrikan hasi ziren.

Aldegin zuten diskotekatik. Baina urrunean gizon bat aurkitu zuten.

- Jainkoaren etxea non dago? - galdetu zion Eugeniak.

- Dena zuzen joaten bazara han aurkituko duzu - esan zuen gizonak.

- Eskerrik asko - esan zuten bi monjek.

- Itxaron, bere aurka eta esklaboen aurka borrokatzeko hartu poltsa eta mapa hau - esan zion gizonak.

- Eskerrik asko - esan zion Eugeniak.

- Ez da ezergatik - erantzun zion gizonak.

Eta hirurak agurtu egin ziren. Hortik 45 minutura:

- Ez zait bat ere gustatzen toki hau - esan zuen Eugeniak.

- Niri ere ez - esan zuen beste monjak.

- Gizonak mapa bat eman al dizu? - galdetu zion Teresak.

- Bai -erantzun zion Eugeniak.

- Begira ezazu - esan zion Teresak.

- Bide zuzenetik goaz, baina harritzekoa, borobil beltz bat agertzen da - erantzuten dio Eugeniak.

- Ea, erakutsi - esaten dio Teresak.

- O, ez monja monster (azkarra) dagoela jartzen du - esaten dio Eugeniak.

Bat-batean bera agertu zen.

- Goazen hemendik, ikusi gaitu eta - esan zuen Teresak.

- Ez, monster honi berea emango diogu eta - erantzun zion Eugeniak

- Pentsa ezazue zuen agurraz, azkena da eta - esan zion monja monsterrek.

Segituan sor Maria Teresak mapa ikusten du eta bere aurka poltsa batekin estaltzea ipintzen dio. Orduan sakutik poltsa bat hartu eta bere gainean ipini zion. Orduan indarra galdu eta hil egin zen. Gero biek aurrera jarraitu zuten.

- Lurralde honek sorgindua dagoela dirudi - esan zuen Eugeniak.

- Isil zaitez eta begira ezazu mapan - esan zion Teresak.

- Tatxan, tatxan, hemen gaude - erantzun zion Eugeniak.

- Zer jartzen du? - esan zion Teresari.

- Monja atomikoa dagoela - Erantzun zion Eugeniak.

- Ja, ja, ja, ja - esan zion barrez leherturik Teresak.

- Ez egin barre, arriskutsua izan daiteke eta - erantzun zion Eugeniak.

Orduan monja atomikoa azaldu zen esanez: ziztuana gora monja atomikoa. Eta Teresak mapa begiratzen du eta han ipintzen zion monja atomikoaren aurka ur sakratua berari botatzeko. Orduan poltsatik ur sakratua atera zuen.

- Egin ezazu zerbait - esan zuen Teresak.

- Zertan ari zarete? - galdetu zuen monja atomikoak.

- Hurbiltzen bazara, ura botako dizugu - esaten dio Eugeniak garrasika.

- Ja, ja, ja, ja, ez duzue pentsatuko uraz ni itotzea, ja, ja, ja, ja - esan zion Monsterrek.

- Baina sakratua da - erantzuten dio Teresak.

- Oh. Ez, sakratua - esan zuen atomikoak.

Orduan Eugeniak ur sakratua bota zion eta segundo gutxira indarra galdu zuen.

Azkenengoz Jainkoaren etxera heldu ziren eta giltza ikusi eta hartu egin zuten Jainkoa lo zegoelarik. Orduan biek giltza ikutu eta Galdakaoko ospitalean agertu ziren. Orduan haien gorputzetan sartu ziren eta 5 egun barru alta eman zien medikuak monjei. Geroztik monja ez izatea pentsatu zuten, eta horrela izan zen. Gero andre normal batzuk izan ziren eta hortik aurrera bi andreak pozik bizi izan ziren.

Ume susmagarria

Janire Arrillaga

Bazen behin batean herri bat, urtean zehar milioika atzerritar jasotzen zituela.

Espazioan bizi ziren estralurtar batzuei datu hauek oso interesgarriak iritzi zitzaizkien, eta pentsatu zuten hainbeste atzerritarrekin haiek lurrera joan ahalko zirela ondo mozorrotzen baziren. Haien helburua lurra menperatzea zen.

Estralurtar hauek oso itxura arraroa zuten. Haien larruazalaren kolorea orlegia zen, hiru esku eta hiru hanka zituzten, begi oso handi eta irtenak eta oso garaiak eta meheak ziren.

Misio honetarako hiru estralurtar aukeratu nahi zituzten. Azkenean haiek zituzten hiru gudaririk hoberenak aukeratu zituzten. Lurrera etorri baino lehen, estralurtarrak oso ondo prestatu behar izan zituzten. Oso ondo mozorrotu zituzten, inork ez konturatzeko beste planeta batetik etorri zirela.

Joateko ordua heldu zenean planeta hartako estralurtar asko hurbildu ziren esperientzia berria bizian ikusi ahal izateko, baina haien galaxia bereko beste planeta batzuetako estralurtarrak ere hara joan ziren. Azkenean, lurrera heldu ziren.

Orain, estralurtarren itxura desberdina zen, oraingo itxura geurea bezalakoa zen, gizakiena bezalakoa, baina estralurtar bakoitzak identitate desberdina zuen. Bik guraso itxura zuten (aita eta ama), eta bestea haien semea zela esan daiteke. Lurrean, bizitza arrunta egiten zuten, gurasoak lanera eta semea eskolara. Ume honek ez zuen lagunik, jendea oso arraroa zela esaten zuelako. Eskolako umeez esan zioten zuzendariari oso gauza arraroak egiten zituela, baina zuzendariak ez zuen ezer egin.



Egun batean mutikoa lurrera jausi eta zauritu egin zen, baina mundu guztiak ikusi zuen bere odola orlegia zela.

Berak ez zekien zer egin. Ikasle guztiak odola orlegia zela ikusterakoan urrundu egin zitzaizkion, irudi benetan nazkagarria zuelako. Jendea baxu-baxu hitz egiten hasi zen. Bat-batean hauxe entzun zen: “harrapatu eta hil munstroa”. Noski, umea bitan pentsatu gabe korrika hasi zen.

Azkenean, zoritxarrez, harrapatu egin zuten bere gorputzarekin esperimenduak egiteko.

Mutikoaren gurasoen bila hasi ziren; baina hauek zorte handiagoa izan zuten eta, justu-justu, ihes egitea lortu zuten. Ume gizajoa!

Eta, nork dio orain unibertsoan bakarrik bizi garela?



Aitona eta nire arteko sekretuak

Libe Atxotegi

Gelan nengoela, Xabier kontatzen hasi zitzaidan aurreko egunean telebistan eman zuten partidua eta andereñoa azaltzen zegoen eta biak hitz egiten ari ginen eta... harrapatu egin gintuen. Xabier ez zuen kalera botako, noski, baina ni bai. Ez da ezer berria ni gela kanpoan ikustea beti bainago kanpoko karrajoan norbait nire bila etorri arte eta esan arte: “Ane, barrura!”. Ni orduan gelara sartzen naiz eta nire lekuan esertzen naiz, ezer gertatu ez balitz bezala, baina uste dut andereñoak ez duela berdina uste, baina niri berdin zait.

Ni ez naiz beste neskak bezalakoa, niri ez zaizkit gustatzen beste neskek jolasten dituzten jokoak, niri gehiago gustatzen zaizkit futbola eta beste kirol batzuk, neska gutxiri gustatzen zaizkienak. Nire lagunik onena ere ez da neska bat, mutil bat baizik, Xabier du izena eta munduko lagunik onena da. Xabier ez da oso guapoa, ile gorria du, aurpegia “peca”z beteta dauka, gorputz argal eta zuria dauka, baina lehen esan dudana bezala, munduko lagunik onena da.

Nire etxean goizeko bederatzietatik gaueko zortzi t’erdiak arte ez da inor egoten. Eta batzuetan, aste betez edo egun batzuetan, etxea hutsik dago nire gurasoak enpresariak direlako eta bidai asko egiten dituztelako. Egunduek ez dira oso onak jantokian bazkaltzen geratzen naizelako, baina beste alde batetik egunik onenak dira, aitonaren etxean lo egiten dudalako.

Aitona bakarrik bizi da, amona orain dela urte asko hil zelako, kantzer batez. Nik ez nuen amona ezagutu ni jaio baino urte asko lehenago hil zelako; oso gazte hil zen.



Hauek nire amaren gurasoak dira. Aitaren gurasoak udan eta gabonetan bakarrik ikusten ditut Argentinan bizi direlako. Beraiek ez dira hangoak baina asko gustatzen zaie Argentina, eta dirua dutenez eta jubilatuta daudenez, poz-pez bizi dira amona Marga eta aitona Jose Mari.

Baina nire aitonarik maiteena hemengoa da, nire gurasoak kanpoan daudenean bere etxera joaten naizena, hori aitona Patxi da. Aitonarekin bizitzea asko gustatuko litzaidake, nahi dudan guztia egiten uzten didalako.

Goizean jaikitzeako ordua denean ohean esertzen da eta esaten dit:

- Anetxo, laztana, ikastolara joateko ordua da.

Eta gosaria ohera ekartzen dit: frutazko zuku bat, tostadak gurin eta mermeladarekin eta esne beroa txokolatzeko gailetekin. Aitonak modu berezi batez esnatzen nau: izartzean beti pentsatzen dut zeruan ez dagoela lainorik eta eguzki handi-handi bat dagoela niri begira.

Etxean aitak ezberdin esnatzen nau:

- Ane, gora, berandu da!. Ez duzu ikusten berandu dela?.

Eta niri kosta egiten bazait esnatzea aitak esaten dio amari:

- Maite, ez duzu ikusten?. Ez dit kasurik egiten!. Neska hau...

Orduan nire ama etortzen da eta izarak eta mantak kentzen dizkit eta esaten du:

-Ane, gora! Aita jadanik haserretu da, ez duzu nahiko ni ere haserretzea, ezta?.

Ikastolara berandu helduko zara eta gaur andereñoak berriz ere gelatik botatzen bazaitu, benetan haserretuko naiz, entzun?.


Ni orduan altxatu egin behar izaten naiz, korrika jantzi eta gosalduek gabe ikastolara joan. Hori alde batetik nire errua da, baina aitonaaren etxean nagoenean ez zait hori gertatzen aitona askoz arinago izartzen nauelako.

Horiek goizean gertatzen diren diferentziak besterik ez dira. Gurasoak nirekin daudenean, zoritxarrez, beraiekin bazkaltzen dut herriko jatetxe batean. Ni ez nago jatetxe batean bazkaltzearen kontra, baina nire gurasoekin bazkaltzearen kontra bai. Bazkarian mobila txirrinka dago denbora guztian eta hori ez zait gustatzen. Aitonaren etxean ez da inoiz horrelakorik gertatzen.

Detaile txikiak izan arren badute beren garrantzia. Afaltzeko, aitonak berak egindako janari bereziak (txinatarrak edota errusiarrak jaten dituzten platerak) jartzen dizkit. Aitona oso sukaldari ona da eta gainera maitasunez egiten dit dena niri.

Oheratzeko orduan esne beroa ekartzen dit eta bere gaztetako istorioak eta amona nolakoa zen kontatzen dit. Kontatu didanarengatik munduko amonarik politena eta irribarretsuen nuen. Irribarretsuen esaten dut, argazki guztietan irribarre handi batekin irteten zelako, bere hagin zuriak erakusten. Nire amonak ile iluna zuen eta begi handi eta berdeak zituen; noski, horrela topatuko zuen munduko gizonik onena. Nik uste dut oso pozik bizi zirela biak. Etxean amak ez du amonaz asko hitz egiten; normala da, asko sentitu zuen bere heriotza. Gainera aitonak esan bezala edade zail batean gertatu zen, amak 15-16 urte zituela. Aitonak esan dit edade horri nerabe aroa deitzen zaiola eta handia egiteko prestatzen zaudela, baina oraindik burua zerbait galduta ibiltzen dela.

Ni oraindik ez naiz sartu nire bizitzaren zati horretan, urte batzuk falta zaizkit oraindik, baina heltzen naizenean arazoren bat badut aitona hor egongo da, ziur nago



Eguneroko ezberdinak

Maitane Beobide

OLATZEN EGUNEROKOA

2001eko martxoak 16

Olatz naiz, 17 urte ditut. Eguneroko hau Mikelek oparitu dit, orain dela bi egun, gure lehen urtea bete dugu elkarrekin eta.


Nolako kasualitatea!!! Amodioak edo... eragina. Nik ere bat erregalatu diot; espero dut bertan gure erlazioari buruzko kontuak eta gertakariak idaztea, neuk ere hori egingo dut eta...

Ostiral hau benetan harrigarria izan da, klase aspergarri baten ondoren saskibaloiko entrenamendu gogor bat izan dut. Hala ere, pozik bukatu dut eguna, Mikelekin geratu bainaiz. Beti elkartzen garen tabernara joan naiz, Akiakulara. Bertan ikusi dut, espaloian jarrita, "Lucky" paketea eskuan zuela. Batzuetan leloa iruditzen zait!!! Euria ari zuen eta bera kanpoan, ni itxaroten. Busti-busti zegoen gizajoa!

Paketetik zigarro bat atera eta eskaini egin dit, gauza garrantzitsu bat esan behar zuelakoan. Horrelako momentuetan ez dut erretzeko gogorik izaten. Akiakularen atzean dagoen lokal batera joan gara, bera eta bere lagunek duten musika taldeak entsaiatzeko duten lekura. Jonek, bere lagunik minenak, baxua jotzen du, Mikel primerako abeslaria da. Arnatzek teklatura jotzen du. Gariri, primeran ematen zaio gitarra, eta Alainek, berriz, bateria jotzen du. Taldearen izena, Anagrab da, eta musika heavya egiten dute.



Lokaleko sofa zahar horietako batean eserita egon gara, eta musukatu ondoren, nirekin amodioa gustura egingo zuela esan du. Orain bai!!! Zigarroa hartu eta erretzeari ekin diot. Hau bukatzerakoan, baietza eman diot, baina nire kezka bakarra eta larriena non eta noiz egingo genuen izan da. Nire lehengo aldia denez, leku lasai batean egitea pentsatu dugu. Azkenean, lokaleko sofan egingo dugu, bihar, 9etan. Musu bat eman, eta etxerantz abiatu naiz, zerbait berria sentitzen nuelarik.



Atzo ez nuen idatzi, Mikelekin egon bainintzen.

Gaur ere ez dut asko idatziko, berriro berarekin geratu bainaiz.

Benetan zoragarria izan da!!! Heldu bezain laster sofa ohe bihurtu dugu. Ia hiru zigarro erre ditut 15 minututan. Gerritik ebatu eta sofaren kontra bota nau, ondoan jarri eta musukatu ondoren, gertatu behar zena gertatu da.

Bat-batean txori kantak entzun ditugu, jadanik egusentia zen eta joan beharra nuen. Musu bat eman eta gaur arratsalderako geratu gara. Etxera joan eta dutxatu ondoren, bazkaldu egin dut. Gero idazten hasi naiz.

Idazteari utzi behar diot, oraindik jantzi gabe nagoelako eta ordu erdi barru, Akiakulara joan behar dudalako.

Hamabiak dira eta Mikelekin orain arte egon naiz. Gure erlazioa moztu du. Oso triste nago, batez ere, amodioa bakarrik egiteko erabili nauelako izan dela uste dut. Ez dut inoiz gehiago egunkari honetan idatziko.



MIKELEN EGUNEROKOA

2001eko Martxoak 16

Mikel naiz, 17 urte ditut. Nahiz eta hau idaztea lelokeria bat iruditu, idatzi beharra daukat, Olatzi zin egin baitiot. Olatz nire neska laguna da. Arratsaldean berarekin geratu naiz, nahi dudana lortu dut, bihar amodioa egingo dugu.

Etixerantz etortzerakoan farmazian geratu, eta kondoi pakete bat erosi dut. Garestiak dira, benetan!!!

2001eko Martxoak 18

Olatzek ikaragarria dela esan du, baina, niretzat 10 minututako gauza izan da, asteburu askotakoa bezalakoa. Arratsaldean, berarekiko erlazioa moztuko dut; ez zait asko gustatzen jadanik, eta ez nago gustura. Pena bat da, urte bete daramagu eta.

Ez dut gehiago idatziko, Olatzen lelokerietako bat delako! Neskak eta beren erromantizismoa... Segur aski, berak hau kontatzeko hamar orrialde edo gehiago erabiliko zituen.

Egia esanda, Olatz ez zait asko axola.



Ez!

Olaya Gonzalez Etxegibel

- Yasminster, mesedez, etorriko zara hona? –amaren oihua entzun dut.

Egongelatik etorri da soinua eta nire gelara iritsi arte ez da geratu.

- Banoa ama! –gelatik irten naiz eta egongelara abiatu naiz- Zer nahi duzu?

Etxea ez da oso handia, lau gela bakarrik dauzka, amaren logela, nirea, sukaldea eta egongela. Azkena da politena. Ez du leihorik, ez daukagu horren beste dirurik, baina kolore guztietako telak daude eskegita. Ez dago mahairik eta ama lurrean dago jesarrita, bere kontu koadernotxoak irakurtzen. Kuxin bakarra niretzako dago prestatuta. Arrosa da, eta kristaltxoak ditu alboetan. Berde koloreko hariak zuhaitz formako marrazkia egiten du. Hantxe jesarri naiz, hankak gurutzatuz.

- Ama? –galdetzen diot- Zergatik deitu didazu?

Amak begiak altxatu ditu bere koadernotxotik eta niri begiratu dit. Bere begi berdeak nireak bezalakoak dira, baina bereak ez dute bizitzarren distirarik. Ahoa zabaldu du eta bere hortz horiak ikusi ditut. Itxi egin du, dudan balego bezala. Berriz ere zabaldu du.

- Yasminster –oso arraroa da niri Yasminster deitzea. Beti deitzen dit Yas, arazo handi bat dagoela dirudi-. Alabatxo maitea. Gaur, dendara, Puna hoteleko gizona etorri da. Dendako kuxinik politena atera diot, baina berak eskuarekin ezetz esan du –arazoa izugarria izan behar dela pentsatzen dut, dendan gertatzen dena kontatzeko-. Nota bat eman dit eta joan egin da.


- Ama, zergatik kontatzen didazu hau dena? Amak, begirada batekin, isiltzeko esan dit.

- Orduan nota zabaldu dut eta aho zabalik geratu naiz –geldialdi bat egin du-. Zurekin ezkontzea nahi zuela idatzi du paperean. Oraingoan ni geratu naiz aho zabalik.

- Telefonoa hartu dut hori irakurtzean eta gizonari deitu diot, eta... eta baietz esan diot.

Negar anpuluak nire begietako atera deitu dute. Saiatzen naiz ez zabaltzen, baina ni baino gogorrago bultzatzen egiten dute eta nire etxera sartu dira. Altxatu eta nire gelara noa, amak ez du ezer egiten ni geratzeko.

Gaur Tokigashu jauna etorri behar da. Gure ezkontzarako gauzak prestatzeko. Japoniarra da. Leihotik nire azken askatasun eguna ikusten nago. Hamahiru urte ditut eta 19. mendearen amaieran gaude. Nire tortura heltzeko bi ordu bakarrik falta dira. Amak deitu dit. Sukaldera abiatzen naiz, eta han ikusten dut: kolore desberdinetako telak ditu eskuan, nire jantzirako dira. Denak dira ilunak, horregatik zuria oso ondo ikusten da. Ertzetan hari distiratsuz egindako bordatua dago. Amak hori hartu du, eta nire inguruan batzen hasi da. Esertzeko esan dit: makilatze ordua dela esaten dit. Masailetan hauts gorri-marroia ipintzen hasia da. Ondoren margo gorri bat hartu eta bekokian puntu bat margotu dit. Nire ile beltza hartu eta orrazten hasi da. Kopeta bat egin eta gero apaintzen hasi da.



- Hala da, Tokigashu jauna –ezin diot aurpegira begiratu, horregatik ama dabil bakarrik hitz egiten-. Nire Yasminder oso neska jatorra eta zintzoa da.

- Pozten naiz –Japoniarrak niri begiratzen dabil-. Yasminder. Ze izen polita. Zerbait esan nahi du?

Oraingoan neuk hitz egiten dut.

- Bai –begirada lurretik altxatu dut-: Askatasuna esan nahi du.

Ama eta Tokigashu jauna elkarri begira geratu dira.

Euria ari du. Lainoek dena estaltzen dute. Nire jantziak blai eginda daude, eta aurpegia ere bai. Ez dago inor kalean, eta etxeetako argiak itzalita daude. Dena ilun-ilun dago. Katu beltz bat pasatzen da nire aurretik, buelta erdi eman du eta nire hanken artean pasatu da. Nire bidea jarraitzen dut. Katua nire atzetik dabil.

- Kaixo, katutxo –katua niri begira geratu da-. Ez duzu etxerik? Nirekin geratuko zara? Katua hurbildu eta nire atzamarrak miazkatzen hasi da. Ialiek deitzen diot. Bakardadea esan nahi du. Plazan eseri naiz eta Ialiek nire gainean etzan da. Belarrien atzealdean zauri bat du. Odoletan dago. Nire musu zapiak bendatu diot.

Zaratak esnatu nau. Eguna da eta merkatu eguna. Ialiek arrain bat du ahoan eta nire eskuetan utzi ondoren ondoan eseri da. Jaten hasi naiz. Amaitu ondoren altxatu naiz, eta merkatura hurbildu naiz. Oso egun zoragarria egiten du eta postuak beteta daude. Lekeya jaunaren semea ikusten dut, afrikarra da, keinu bat egiten dit eta hurbiltzeko esaten dit. Bere aitaren postua da, niretzat, politena. Bere kontinenteko gauzak saltzen dituzte. Oso mutil jatorra da, nire adinekoa. Nahiko erakargarria da, begiak marroi ilunak ditu, ilea oso labur, eta beltzarana da. Betidanik izan gara lagunak. Heltzen naizenean bere postura, bere begiradan dena dakidala ikusten da. Ezkondu behar naizela daki. Egurrez egindako eraztun bat hartu eta nire atzamarrean jartzen du. Ondoren, ezkontza ostean berarekin joateko esaten dit eta joan egiten da.

Amaren postua desagertu egin da. Zulo bat dago bere lekuan.

- Yasminster –nor bait deika dabil, baina ez diot kasurik egiten-. Yasminster. Azkenean aurkitu zaitut.

Bitxikeri dendako andrea da. Bere ile beltza solte eramaten du beti, eta saria sokekin lotuta eramaten du, oso potola dago.

- Ama oso kezkatuta dago. Etorri nirekin.

Begietara begiratzen diot, eta buruarekin ezetz esaten dut. Negarrez hasi naiz, eta lalie besoetan hartzen dut. Idnepu, bitxikeri dendakoa, besoetan hartzen nau eta etxeraino eramaten nau. Ama dago atean. Nire ondora heltzerakoan hau esaten dit:

- *Noej etsitpab reinuam* –gaueko ekintzak, egunez konpentsatzen dira.

Eliza oso handia da. Dena zuria da, berria. Nire ezkontzarako eraikita dago. Tokigashu oso aberatsa da eta eraikitzeke esan du. Nire saria guztiz zuria da, begiak bakarrik ikusten dira. Musika entzuten dut barrualdean, ate zabaltzen da eta sartu egiten naiz. Tokigashu eserita dago eta abadea ere bai, ni zutunik egon behar naiz.

- Tokigashu jauna –abadeak ezkontza hasi du-. Yasminster zuretzako hartu nahi duzu?

- Bai.

Erantzunak min egiten dit bihotzean.

- Orduan har ezazu eta eraman zure etxera.

Niri ez dit galdetzen, behartuta nago eta. Bere etxera eramaten nau, eta sufrimendua hasten da, ohea malkoz beterik dagoela. Eguna da jantzi, eta Lekeyaren semearengana habiatzen naiz. Elizaren kanpoaldean dago itxaroten. Eskua hartzen dit eta korrikan hasten gara. Portura heldu gara, itsasontzi baten sartzen gara eta beste bizitza berri baten bila irteten gara. Baina nire barrualdean zerbait sentitzen dut, eta ez da nire ama uzteagatiko pena.



Gizon baten ametsa izana naiz

Iasmina Gorroño Larrinaga

Gaur, ehun urte bete ditudanean, bota egingo nautela jakin dut. Atsekabeturik eta triste nago, lur jota. Ez nau inork maite.

Gaur, sitsez eta sasiz janda egon arren, luzaroan gizon baten ametsa izana naiz: Juanjo Zugadirena alegia.

Juanjo, Errota baserriko 9. semea, 18 urte zituela, Argentinara sukaldari joan zen bere lehengusu baten jatetxera.

Egunak joan, egunak etorri, Juanjoren bazkari-afariak gero eta ospetsuagoak egin ziren eta jatetxe hark makina bat janari eman zuen. Horregatik, gure sukaldariak bere jatetxe propioa irekitzea erabaki zuen, Buenos Airesen bertan. Negozioa primeran zihoakionez, hotelen esparruan ere sartu zen bere lehengusua kidea zuelarik. 55 udaberri eta ile urdin mordoxkarekin aldean, bere jaioterrira itzultzea erabaki zuen; ezkondu, seme alabak izan eta bizitza osoan amestutako etxea eraikitzeko: NI NEU.

Ez ninduen edonola egin. Sasoi hartako arkitekto onenatariko batek diseinatu ninduen eta altzairu ederrenez jantzi ninduten. Handik gutxira, Juanjo, nire

lorategian ezkondu zen Etxebarri baserriko Maritxu Iriarte gazte mardularekin eta geroago, euren seme-alabak bertan hazten ikusi nituen urteetan zehar.

Daniel gazteenak, zirugia izan zuen txikitatik gustuko. Sukaldean oilasko bat hiltzen zen bakoitzean, han zegoen laguntzaile.

Begoña, aitaren urratsak jarraituz, negozioen munduan sartu zen, lehenik ostalaritzan eta beranduago, etxegintzan.

Pedro Marik, semerik zaharrenak ere, aitaren pausoei jarraituz sukaldaritza zuen ogibide; baina, Juanjorena berezkoa bazen, Pedro Marirena ostera, aitarengandik ikasitakoaz gain hainbat ikastarotan ikasitakoaren emaitza zen. Horregatik, Parisa joan zen bertako ardoak eta sukaldaritza ospetsua ezagutzera.

Etxeko umeak gazteak ziren bitartean, nire geletan bizitasuna eta barbaroa ziren nagusi. Daniel, Begoña eta Pedro Mari kanpora ikastera joan zirenean ordea, isiltasuna nagusitu zen eta aldi berean Juanjo gaixotu egin zen, minbiziaz.

Nire egileak hainbat ordu igarotzen zituen nire lorategian zegoen aterpeko besaulkian eserita. Udaberriko egun epel eta eguzkitsu batean, 80 urterekin, joan egin zitzaigun.

Bat-batean, Maritxurentzat handiegia bilakatu nintzen; seme-alabak etxetik kanpo, senarra hilda, zer egingo zuen ba! Ulertzekoa zen hartu zuen jarrera: Maritxuk gero eta ordu gehiago pasatzen zituen etxetik kanpo eta nik ezagunagoak nituen hezetasunaren usaina eta hautsaren laguntza. Ni ere alferrik galtzen hasia nintzen!

Handik pare bat urtetara beste lagun bat izan genuen etxean: Peter Collins amerikarra. Etxekoandrearen laguna.

Donostiako zaldi lasterketetan ezagutu ziren, biei apustua gustatzen baitzitzaien.

Maritxu alargundu zenean, apustuak egitera zaletu zen: bingoetara, loteriara, kasinoetara, baita ere zaldi lasterketetara ere.

Peter gizon lodikotea eta garaia zen, dirua barra-barra gastatzen zuen horietakoa. Aberatsa ematen zuen.

Urteak pasatu ziren, eta Pedro Marik gustura jarraitzen zuen Parisen bizitzen, Interpolen lan egiten Sarah Dupon zuen neskarekin.

Sarah oraingoan, duela lau urte New Yorkeko Metropolitan museoan lapurtutako Gertrude Stein Picassoren margo famatuaren desagerketa aztertzen zebilen. Kasua zaharra zen eta Interpolek ondorengo pista hauek zituen:

1. Lapurra gizona zen.
2. Lodikotea eta garaia zen.
3. Ameriketatik ihes egindakoa zen.
4. Erretratu robota bazuten.

Iluntzeko zazpiak ziren Parisen, Pedro Mari afaltzeko arraina prestatzen zegoen eta Sarah, Picassoren koadroaren lapurketaren fixategiak birpasatzen zegoen erretratu robota alboan zuela. Handik ordu laurdenera, Pedro Mari joan zitzaionean afaria prest zegoela esatera, erretratu robota ikusi zuenean, ezaguna egin zitzaion aurpegi hura. Bere amaren maitalearen izugarritzko antza zuen gizon hark, eta, txantxetan Sarah-ri komentatu zion. Sarah-k ez zuen uste txorakeria hutsa zenik eta eskuartean zituen paper eta boligrafoz Pedro Marik esandakoaz informe bat osatu zuen. Interpolek zituen datuak eta Pedro Marik emandakoak ez zetozen bat, deskribapen fisikoan izan ezik

Hau ikusitakoan, bikoteak aste beterako amarenera joatea erabaki zuen. Han etorri ziren Sarah eta Pedro Mari aspaldiko partez oporrak pasatzera zetozela esanez. Sarahk denbora nahikoa izan zuen Peter Collins ez zela Peter Collins ziurtatzeko, John Martin baizik. Metropolitan museoan lapurtutako artelanaren lapurra.

Hurrengo egunean, Peter Collins ez zenak zerbait arraroa sumatu zuen bere etxe aurrean jende ezezaguna ikusteaz batera.

Arineketan, eskailerak igo zituen eta ihes egiteko nahian, bere logelako ezkerreko leihotik salto egin zuen, baina zoritxarrez, lorategiko harri koxkor baten kontra kokoteko bat hartuz, bertan siku geratu zen, hilda.

Maritxuk orduan, bertan behera utzi ninduen, bakarrik. ONG batekin Afrikako erdialdera joan zen bizitza berri baten bila.

Gaur bere ilobek saldu egingo naute, zentro komertzial handi bat egiteko.

Triste nago, inork ere ez nau maite, baina, egun baten gizon baten ametsa izan nintzen.



Eskubero eta kiskalesku

Liber Sologaistua

Bazen behin eskularru bat, Eskubero izenekoa. Oso bihotz onekoa zen: ateratzen zuten bakoitzean asko berotzen zituen eskuak. Itxuraz “atzamarrak” ez zituen oso luzeak eta artilea kolore gorri bizikoa zuen.

Alpeetako etxe handi batean bizi zen eta barruan bero handia egiten zuen. Etxearen inguruan iturri bat zegoen, eta bertatik metal-ura irteten zen. Etxearen atzealdean ortu bat zegoen eta bere ondotik erreka bat pasatzen zen.

Eskuberoren bikotea oso alaia zen, baita barregarria ere. Egun batean, mendira joan ziren, Eskubero, bere bikotea eta Mikel, bere jabea. Bat-batean txakur gaizto bat agertu zen, Mikelek beti zirikatzen zuena. Zakurra lotuta zegoenez Mikelek zirikatu egin zuen, txakurra hainbeste haserretu zen, ze, soka apurtu eta Mikelengana joan zen, eta Eskuberoren bikotea helduta puzka-puzka eginda utzi zuen. Mikelek pena handia hartu zuen eta, beste erremediorik ez zuenez, zakarrontzira bota zuen.

Eskubero oso bakarrik sentitzen zen, bikotea falta zitzaion barre egiteko eta gainera, Mikelek ez zuen Eskubero eskuan ipintzen, bakarra zelako. Egoera honetan, gure

eskularru gaixoak beste eskularru bat topatzeari ekin zion. Bere etxeko kaxoi guztiak arakatu ondoren, eseri egin zen bikotea topatu ezinik. Orduan, Eskuberok gogoratu zuen aurreko urtean, aldameneko etxean, txakur berberak beste eskularru bat txikitu zuela eta agian bertan topatuko zuela bikote bakarti bat. Aldameneko etxera joan eta han, kaxoi zahar artean, eskularru bakartia aurkitu zuenean berarekin joan nahi zuen galdetu zion, eta honek baietz erantzun zion poz-pozik.

Etxera itzuli zirenean, Kiskaleskuri, aldameneko eskularru bakartiari, txoko bat egin, etxea erakutsi eta oso pozik ibili ziren. Egun hartatik aurrera Mikelek Eskubero eta Kiskalesku berriz ateratzen zituen kalera eskuak berotzeko.

Aste batzuk igaro ondoren, Eskuberok Kiskaleskuri kasu gehiago egiten ziotela pentsatu zuen: arinago hartu, bera edozelan bota eta Kiskalesku txukun utzi ...

Hau pentsatzean Eskuberok eskularru hobea eta maitatuagoa izatea erabaki zuen. Ateratzen zutenean gehiago berotzen zituen eskuak hartarako. Kiskalesku leloa ez zenez, egoeraz jabetu ondoren, bera ere gauza bera egiten hasi zen. Lehia honetan zebiltzala, Mikelek eskuetan bero gehiegi sentitu eta, amorratuta, biak askara botatzea erabaki zuen.

Uretan murgildurik zeudela biak maitatuak zirela ohartzean, adiskidetu egin ziren. Banan-banan ez ziren ezer, bikotean taldea osatzen zuten!

